

7ER

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
18n. ZENBAKIA
ZEZEILLA
— 1979 —**



XABIER, EUSKALDUN JATORREN BIZILEKU ZARRA

*Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.*

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-
goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan
aurrerapen gurariai egiteko erantzuna emoteko baiet-
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-
teko libretak izan daitezaz.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-
kai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorki-
zun ederrago bat egitea gura dauala
adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-
gu.

Biar emen izango da.



BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA

Geroa, bertan daukagu.



JAKINTZA-ARTEAN

EZ GARA BAKARTIAK

Sarritan entzuna dogu olako zerbait: Euskaldunak erri bakartia garala, ez dogula iñoren jakintzarik geureagaz nastatu, ez dogula geurea munduan zabaldu.

Esaldi orreik ba-dauke euren susterra, baiña pizka bat aztertu bearrekoak dira:

Euskalnak asko artu dogu inguruko ta urriñeko errien jakintzetatik eta geure munduan zabaltzen be ez gera beti alperrak izan.

* * *

DONE JAKUE'REN BIDEA

Erdi-Aro guztian kultura-zabaltzaille eta nastatzaillerik aundiena, Europa-barruan eta Kurutze-guden zabalkunde ikusgarria aitzu barik, Done Jakue'ren bidea, Konpostela'rako kaltzadak izan ziran.

Eta izan genduan euskaldunak kultura-bide orretan zer-ikusirik?

Zalantza barik, bai. Batez be Naparroa'ko ta Errioxa'ko lurralde launetan. Ango eleiza zarrak ikustea naikoa da ori baiezatzeko. Aurten-arte gogoratzen izan da ibiltari orrein ekintza, Obanos'ko erri-antzerkian eta aurrerantzean be gogoratuko dala uste dogu.

Gipuzkoa ta Bizkaia orretan larregi ez dira sartu, menditsuak diralako eta ba-leiteke

Emeryc Pucaud gotzaiñak diñoan lez, emengo biztanleak aldi aretan basatiagoak ziralako.

* * *

ARTU ETA EMON

Euskaldunak onak izan gara iñoren jakintza-gaiak artzen eta geure-geure egiten.

Gogoratu artuak doguzan kultura-gai batzuk: pelotea, txistua, dantzak, txapela, eta ebar.

Eta gure kulturea munduan zabaldu daben mixiolariak, billatzaillak, gudariak, arrantzalleak, gudariak, jakitunak eta zenbat eratakoak gogoratu geinkezen.

Artzen eta emoten onak izan gara. Orregaitik euskal-itzak toki askotara zabaldu dira eta euskereak izkuntza askotako itzak ditu bere barruan.

Ez gara bakartiak.

... izan ohi gendunak ...
... izan ohi gendunak ...
... izan ohi gendunak ...

EDER - LANAK

Begiratu dagigiguzan gure Erriaren luze ta zabalean gizonak bere eskuz egin dituan lan ederrak: Etxeak, irudiak, margazkiak, eta abar.

Laster konturatuko dogu asko eta asko kanpotarrak egiñak eta kanpotarrakandik ikasitako maixu barriak egiñak dirala

Aldian aldikoak, tankera egokikoak: Erromanikoa, gotikoa, Berbizkunde-aldikoa, barrokoa eta olako tankerak ez dagoz gure erritik urrin.

Sarritan irudigille euskaldunak, beste asko kanpotik etorritako irudigilleak, baiña dana dala, Euskalerrria bere aldi bizi izan da.

Elertian, literaturan, ez ainbeste, baiña zerbait: Etxepare ta Axular Berbizkunde-aroan jarri geinkez eta Bilintx erromantikuen urteetan eta beste asko euren sasoiaren, naizta iñoz gure sasoiak ;erbestekoak baiño beranduagoak izan.

*

ERIoTZA - DANTZA

Jabier'en gaztelura azkenengoz, oraintsu, ikustaldia egitean bururatu jakuz olako gogorapenak.

An ikusi dogu, oraintsu kare-azpitik atera daben eriotza-dantzen margazki-moltsoa.

Orra or Erdiaroan Iberia'n eta Europa'n ain zabal ibilli zan gai bat Euskalerrriaren barru-barruan, Jabier'en sendi euskalzalearen tokirik 'maitagarrianean, eleizan.

Jolasa ezibidea da

Orain arte ikusi dogunez, umeak txikitatik ezi bear doguz. Eziketea ez da ikastetxera bialtzean asten. Eziketa askoz be leenagoko arloa da.

Gaiñera, «eziketa» esatean, ez doguz gizarteko oitura, pentsaera edo jokabide oneik edo areik bakarrik aitatu bear.

Ba da oneik baiño arlo garrantzitsuagorik: umeari bere aalmen-azkuntzan aal danik eta ondoen laguntzea, gero eta gizonago eta zoriontsuago izan daiten.

ONA EMEN BIDE BAT: JOLASA

Jolasa benetako ezibide bat dogu, eta sarritan ez dautsogu bear dauan garrantzirik emoten.

Eta geiago: sarritan bere garrantziaz be ezer gitxi dakigu. Jakin ezik, ezin emon berea ez jolasari ez umeari.

Beraz, gai onetaz zeozer arduratzen asi bear dogu.

Lerro oneik argitaratu orduko, Gabon-Urte Barri-Errege Jaiak igaroko dira, eta jostailluak erosi eta emonda egongo dira. Baina, ostean baiño ez bada be, gai onetaz zeozer aztertzea egoki izango da.

GURASOAK - JAIK - JOSTAILLUAK

Gure artean jostailluak Gabon-inguruan banatzen dira. Eta arazo makala ez da izaten erosketa-arloa.

Aldi onetan jostaillu-etxeat milloika diru asko propagandan botatzen dabe. Or doguz teleikuskiña, orma-agiriak, eskapareak, aldizkariak eta abar.

Zein da guzti onein elburua?

Aal danik eta geien saltzea.

Baiña... eta gurasoen elburua?

Gurasoen elburua semeak dira, naiz eta jostaillu erosketetan sarritan elburu zuzenik izan ez.

JOSTAILLUAK: ENTRETENIGARRI ETA EZIBIDE

Jai oneitako oitura berezi bat umeei opariak egitea da. Geiago edo gitxiago, danak artzen dabe zeozer edo asko.

Baiña zenbat okerbide dagon onetan !

Sarritan jostaillu opari oneik oitura utsak baiño ez dira izaten. Egin bear dirala eta, egin egiten dira.

Beste batzuetan, besteak baiño geiago agertzearren, edo jostaillu garestiez bakoitzaren egoera bat erakustearren, edo zenbat eta garestiagoak, obeak dirala uste izatearren, erosten dira.

Baiña gure erosketak betetzen ete dabez jostaillu baten elburu oneik: entretenigarri eta ezibide izatea?

Jostaillu asko (pistolak, geziak, eta abar) geienetan umeon pozgarri izaten dira. Baiña... eta ezigarri?

ZELANGOAK EROSI? EZIGARRIAK

Ezigarriak ez badira, zer esanik ez aldatu bear dirana, edo erosi ez.

Eta norbaitek bereala itaunduko daust: Ezigarri guztiak entretenigarri aal dira?

Ona emen gurasoen buruaustea: ume bakoitzak bere atsegiñeko jokoak eta jokabideak dauz. Beraz, ezin onartu era berean jostaillu danak.

Baiña ona emen baita be gure ezitzalle lana: umearen jokabideak aztertuz, bere aalmen azkuntzarako jostailluak erostea.

Jakiña umearen gogoa jarraitu bear dana.

Baiña ezitzalle lez gogo barriak sortzen be aalegindu bear gara.

Ezin jako atsegin ez jakon jostaillurik emon. Naiz eta teoriaz onena izan, ez dausku onartuko, eta *onartuta* be be ez dira jostaillu baten elburuak lortuko.

Bear daan eran onartzeko, ezitzen be aalegindu bear izango dogu, atsegiñeko eta ezibide izan dakiozan.

Luki baten zoria

AREN ASMOAK

Luki batek, bere abitik urten baiño len, uzker bat egin, eta onela iñoan bere kautan:

—Neure putz bero onek zori ona dakarst; zalantza barik. Zerbait onik neureganatuko dot gaur, an edo emen.

Ozta-ozta abitik urten, eta puxika bete gantz ostu eban.

—Ondo nebillen bai, nere goizeko zer bero arek zoriona zekarkidala-ta... Baiña au jaten ba'dot, astun itziko nau, egun guztirako. Noaian aurrera, eta zerbait oberik aurkituko dot.

TXARRI - AMEA

Aurrera jo, esan eban lez, eta txarri-amea aurkitu eban, zortzi ume ederrez inguraturik. Eta onela esan eutsan txarri-ameari:

—Neureak zarie guztiok !

—Luki, Lukito, zer egin bear dauskuzu?

—Danak jan!

—Onelan..., zikin-zikin jan bear gozuz? Osin bat dago or bean; jan bear bagozuz be, askoz obada, nere umeok garbi-garbi eginda jatea !

—Ez da txarto esana!

Joan da, ba, luki ori osin-ondora, eta asi da txarrikumea garbitzen. Eta lan orretan, su ta ke, ebillela, atzeko aldean egoan txarriak muturrez taupada bat emonda, osin barrura jaurti eban luki gosetia.

Eta lukia ito-urren egoala, igesiari emon eutsan txarriakbere kumeakaz. Oso urrin ziran, lukia osiñetik urten zaneko; eta onela zirautson onek bere buruari:

—Ederra gerta jat! Nork egin niñun ni txarri-garbitzaille? Zergatik ez nebazan jan, euren zikin eta guzti? Ez nadilla baiña larregi estutu. Zertxoren bat aurkitu dot oraindiño!

* * *

BEORRA

Asko luzatu barrik, beor bat ikusi eban bere kumeagaz; eta onela esan eutsan:

—Neureak zarie biok!

—Niii..., jan? Zar zimela nago ni orretarako !

—Ondo diñozu, bai! Ez zaitut jango. Zure kumea jango dot!

—Ori..., bai! Neure kume ori jan baiño len, ni norabait aldentzen itzi bear nozu Arantza bat daukat orpoan, eta atera egistazu, bidean lasterka ibilli naiten.

—Orrelako mesedea egin leikio zu lango beor zentzundunari.

Eta or abiatzen da luki ori beorraren orpoa osatzera. Eta lan orretan ziardula, beorak ostikada andi bat emon musturrean, eta luki ori ortzbarik itzita, iges egin eban bere kumeagaz.

AUNTZA

Lukia, noizbait, bereganatu, eta onela iñoan berekiko:

—Eta nork egin nindun ni osagille, beorraren arantzea ateraten jarduteko? Ene bada tani! Goizeko puxika-gantzak astunduko ninduala... ! Ez nau astundu, ez... ! Ene bada ta ni!. Txarrikume areik jan izan ba'niku... Ene bada ta ni!, beorkume gizen a bertan garbitu izan ba'neban!... Ez jat orrelakorik gertatuko emetik aurrera, ez orixe!

Joan, joan, joan..., eta auntz zar-zar bat agertu jakon; eta onela esan eutsan, bat-bat-batean:

—Auntz auntzatxo, jan egin bear zaitut!

—Ni..., mundik-nora? —erantzun eutsan auntzak_. Begira, Luki, ez naz azurra ta azala baiño. Aunzkia jatekotan, ni baiño obe dozu nire aume biok jatea. Ortxe dagoz beko erreka orretan. Ona ekarriko dodaz, gura ba'dozu.

—Ondo esana! Ekarri egistazuz !

Auntz ori beko errotara joan; eta aumegaz itzuli bearrean, ango errotariari esan eutsan an gertatzen zan guztia.

Errotariak, orduan, eskupeta artu; eta errota-leio batetik punpa lazgarri bat egin, eta bertan ankaz gora bota eban luki iguin-garria.

JATORRIA

*Euskalduna izatea
pekatua ba da
ori autortu
bailto lenago
iltea oba da.*

NONDIK ?

Asko esan da eta idatzi da euskaldunen jatorriaz.

Batzuk «Caucaso» aldetik datozela diñoe, ango jendearen eta emengo jendearen gauzak eta bizitzeko erak bardintsuak diralako.

Beste batzuk Afrika'ko Ipar-aldeetik datozela be ba diñoe.

Ba dago, euskalduna bertan sortutakoa dala diñona.

Baten batek. Atlantida lur-aundi ondatu-oren ondoren bizi diranak dirala be esan dau.

Ni neu ez naz jakituna arlo onetan, eta ezin dot ez baieztatu ez ukatu esandakorik, ba dagoz ni baño jakitunagak orretarako; gaiñera idazti onen elburua ez da ori.

ETXEAN

Munduko kondaira idatzian, euskaldunak erromatarren eskutik datoz.

Idatzita dago euskaldunak erromatarren laguntzaileak zirela Cartago'ren aurkako gudan.

Baiña geur ba-dakigu euskaldunak ibero eta zelten aurretik dagozala lur oneitan, eta aintziñako Euskal Erria gaurkoa baño askoz be zabalagoa zala.

Baita ba dakigu gizonok, naiz eta bakegizonak izan, Euskal Errian indarkeriaren bidez sartzen zana, danak bat egiñik, indarraren bidez be kanpora ataraten ebela.

Baiña nekez urten dau euskaldunak bere lurretatik iñoren aurka joateko.

Lege zarrak diñoanez, Bizkaiko jaunak aginduteko aukera eukan bizkaitarrari armak edo izkilluak artzea Bizkaia etsaiagandik zaintzeko.

Orduan bakerrik artzen eben izkillua eskuetan, gaiñera, Bizkai'ko jaunak Malato'ko zugaitzetik jarraitzea gura ba'eban, ori gudarien eskuetan zegoan, ez zan derrigorrezkoa aurrera jotea.

Au gitxi ba'da, esaera zaar batek iñoan: Malato'tik aurrera jarraitzen eban euskalduna, lenago edo geroago, bere jaunaren aurka itzultzen zala. Adibiderik argiena «Lope de Agirre» izan geinke.

LANA

Euskal jolasari begiratu ezkerro, indarjokoak dirala nagusi esan geinke, eta egune-

roko lanean oiñarritzen dirala: Zein lenago eldu kaira egunean artuko arraiñak saltzeko, onek ekarri dauskuz gaurko estropadak; zein nek lenago ebagi enbor bat, aizkolariak; zein nek pixu geiago jaso lepo gaiñera, arrijasotzaileak. Segalariak, palankariak, idi-demak... danak oiñarritzen dira eguneroko lanean.

Bai, euskaldunak langille zintzo eta fiñaren fama euki dabela egia da, baiña jaija egiteko orduan be, iñoren atzetik ez direla sekula geratu be egia da.

Euskal Errian santurik txikiak be, bere jai nagusia euki dau, ta an ziran triki-trilariak eta bertsolariak alaitasun sortzeko.

ORAIN ?

Bai, orain arte esandakoak gauza politikak eta ikusgarriak dira, baiña gaur bizia ez da ordukolakoa, dana dago aldatuta, bizia bera be aldatu egin da.

Mundua prisaz doa, ez da geratzen, ezin gara bultzi onetatik jatsi.

Orregaitik nire galderak oneik dira: Gaur, zer da euskalduna izatea? Zelan al dogu izan gaur euskaldunak?

Batzuentzat, euskera jakin ezkerro neiko da euskalduna izateko.

Ontzat euskera jakitea eta euskalduna izatea bat da.

Beste batzuentzat, euskalduna izateko Euskal Erriko arazoak barruan asmau bear dira.

Neretzat onek lenengoak baño esangura aundiagoa dau; Euskal Erriko arazoakaitik ardurea daukanak euskerea zabaltzea edo ikastea, ez ba'daki, izango dau elburu nagusietariko bat.

EUSKERA

Euskara dala ta, berba asko egin da, bai ta idatzi.

Baiña berbak aizeak eroan dauz, eta idatzitakoak denporeak atzindu egin dauz.

Orain urte batzuk Euzkadi'ko alderdi abertzaleak EUSKERA eukien elburu nagusizat.

Baiña egunak joan, egunak etorri, elburuak aldatu egin dira antza danetik.

Ostantzean, zelan ulertu leike euren agerpenik geienak erderaz ataratzeta?

Nik ez diñot alderdi bategaitik ez bestea-gaitik, danakaitik baño.

Euskaldun izakerea eta nortasuna EUSKERA'n oiñarritzen dala ukatu eziñekoa da.

Orduan, mezedez, euskaldunak eta abertzaleak garala ba diñogu euskera ikasi, berba egin eta zabaldu dagigun.

Alan ba'da, aldeurretiak eskerrik asko, eta ez ba'da, parkatu au irakurten denporea galdu eragitea.

ERIOZTA-DANTZAK


ERDI - AROAN

Gaurko gizonaren gogorapenak eta Erdi-Aro'ko arenak alkarragandik urrin dagoz, benetan.

Eta eriotzeari begira be urrintasun au agertzen jaku.

Erdi-Aro'ko gizonak errez alkar ilten eben, Jaungoiko-zaleak ba-ziran, baiña ez ainbeste giza-zaleak.

Ez dakit orregaitik izango dan, baiña eriotzearen irudi bildurgarriak eta nabarmenak egiten



ebezan, eta irucli bildurgarri ori begien aurrean euki bearrekoa zalako edo, eriotzearen irudi zan, giza-soiñeko azur-egitamuagaz egindako edo egiteko dantzaldiak gogoratzen ebezan.

Erdel-elertian ezagunak dira «eriotza-dantzak» deritxen koplak: Eriotzeak, gaur batari biar bes-teari, dantzarako deia egiten eutsen eta ori zan eriotzea.

Asmapen iguingarria ta bildurgarria, benetan.

Eta ez bakarrik Iberia-aldean, Europa guztian ebillan zabal idazte-tankera au, antza dagoanez Erdi-Aro'ko gizon erdi-basatientzat egokia.

* * *

MARGOLARIAK

Margolarien artera be sartu zan tankera au eta Auropan baten baiño geiagotan agertzen dira olako irucli izugarriak.

Ez, ostera, Iberia'n. Emen elertian ain ugaria dan tankera au, ez da agertzen margoetan.

Eta ona emen, oraintsu non agertzen jakun Euskalerrian olako iruditegi ederra. Jabier'en etxean ain zuzen. Margo gogoangarriak eta zarrak, ainbeste urtetan orman estalduta egon eta oraintsu agertu diranak.

Jabier'en etxe maitagarri aretako gelarik maitagarrienean, Jabier'en Jesus Kurutzeratua dagon eleizan bertan, alboetako ormetan.

Ba-leiteke Erdi-Aro'ko gogorapenak geroago atsegingarri ez ziralako, margazki orreik estaldu bear izatea aldi barriagoetan.


*

EGOKIAK?

Jabier'en aldiko eta bere tankerako sendi baten olako irudi margotuak zelan sartu zeitekezan? Egokiak ete ziran?

Sendiaren asmamenez ez ziran sortuko, nik uste, baiña munduan dana erasten da, dana sartzen jaku biotzera ta burura.

Jabier'en sendia, jatorriz eta jokabidez, oso euskalduna zan, baiña aldiko tankerearen bultza-



deak indar egiten dau eta Europa'ko aizeak ez ebiltzan Naparroa zarretik urrin...

Dana dala, irudi gogoangarriak or dagoz Jabier'en eleizako ormetan.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZARRAK ETA GAZTEAK

GAZTEAK BILLA

Gazteak gaurkotasunean irakasle izaten dira. Zarrak gazteengandik ikasteko gertu egon bear dabe, batez be gure aldietako bear-izanai egoki izateko gaietan.

Oraingo gizaldi onek, langilleentzat alogor obeak lortzeko, biziera egokiagoa izateko, alegiñak egiten ditu.

Gazteak, aurrerapena lortu bear dabenean, txarra edo kaltebidea izan daitekenik ez dabe gogoratzen, ez dauke bildurrik.

Oraindiño ez dira eldu euren elburu, gopagen eta egiteraiño, baiña orretan dabiltz eten barik eta adoretzu, kemen eta uste aundiz.

ADORETSU

Gaur, gizaldi gazteak bere arloa beteten diardu. Gizabide lilluragarrictan dabil.

Zarrak, begiak, entzumena ta adimena itxi gura ez ba'dabez, gazteen laguntzaz asko geiago ikusi leikee.

Ez dogu esan gura, zarrak gazteen gogamen eta egitada barri guztiak onartu bear dabezenik. Esaterako seksu-bideak edo droga zalekeriak edo ikasteko arclurabakotasuna.

Ez dogu esan gura, zarrak gazteen gogamen eta egitada barri guztiak onartu bear dabezenik. Esaterako seksu-bideak edo droga zalekeriak edo ikasteko arclurabakotasuna.

Orregaitik, gazteak orretan diardue, ez arinkeriz eta jakingabez, politika-jakituriz baiño: Len baiño urrago jo-muga orretara gizadia eldu leitekela ausnartzen eta gogoratzen dabe.

Tamalez, emen Euzkadi'n, gure artean, gaztedia gizadiaren elburu orretatik aldenduten doala dirudi, baiña laster munduko gaztediaren bidera sartuko dala uste dogu.

ZARREN BIDE OKERRAK

Zarrak ba-ekien langintzan, salerosketan, clirurazoetan, okerkeri aundietan ondatuta eta murgilduta egozala.

Alan be, ontzat artu ez arren, era orreik aldatzea gaitxa dala uste dabe eta gauza orreik kazikeena, jauntxoena, dirala esaten dabe.

Baiña irurogei urteko askok be, euren diru-biderik onenetan bide okerrak eta zuzengeak arteztuten diardue, naizta ondoren beteraiño eldu ez. Zarragoak bildur ziran bide orretatik joateko baiña bultzaka, indarka eta alegiñetan dabiltz.

ZARRAKANDIK IKASI

Jakiña, gazte guztiak ez dira zuzenak, artezak, ezta arazo zuzenen eragilleak be.

Baiña zarrak diranak, eurak irakasten dautsena ikasi bear dabe eta antxiñako oitura zarrak gure aldiko bear-izenetara egokitu bear dabez.

Eta gazteak ez dabe izango zarrakandik ikastekorik?

Bai orixe, eta ez gitxi. Zarrak ikasitako ondasunketa aundia dabe eta irakasteko prest ba'dagoz, gazteak asko ikasi leike eurakandik.

Antxiñako gazteak euren abendako zarrakaz era bitan jokatzen eben: Edo euren bizilekue-tatik kanpora jaurti edo cleclu ta lotsaz begiratu jakituri-iturria ba'litzaz lez.

Olan begiratzen ba'ziran, zarrak abenada-erriari iraun-azo egiten eutsoen, sendatu ta tinkatu egiten eben aberria.

ERRIAREN IZEN ONA

Gure euskal-abenda onetan, gazte batzuk zarrak ostopo ta eragozpen lez ikusten dabez.

Gure euskal-abenda onetan, gazte batzuk zarrak ostopo ta eragozpen lez ikusten dabez.

Paris'ko Andra Maria'ren eleizan, auxc esan eban izlari ospetsu batek. Euskalerritari buruz: Erri aske ta onbidetsuak etxekoai dautsen dedu ta itzala, biurtu clagioguzan sendiari. Erri bat bizi cia, ebreetarren antzera, gizaldietan zear antxiñako oituren zaletasunean. Etxeko teillapean aske ta begirakor zan Euskalerriri lege naigarri ta jakintsu au idatzi eban: Euskotar baten etxera bederatzi oinkada baiño urrago agintaririk ez daitela sartu.

Beste itzaldi baten iñoan: Aberastasunik onar-tzen ez dauan eta txirokeririk ezagutzen ez dauan Euskalerriri, ikuskizun bakana emoten dausku. Gure zarren jarraibide oneik, ez dagizala aiztu Euzkadi'k.

Emengo gaztediak orain galdu leike altxor maitagarri ori, gure erriko antxiñakoen oitura ta ekandu agurgarriak onartu ezik.

Kontuz ibilli gero ! Bestela zeuen ondamentia billatzen dozue!

JARRAITU

Beste itzaldi baten iñoan: Aberastasunik onar-tzen ez dauan eta txirokeririk ezagutzen ez dauan Euskalerriri, ikuskizun bakana emoten dausku.

Gure zarren jarraibide oneik, ez dagizala aiztu Euzkadi'k.

Emengo gaztediak orain galdu leike altxor maitagarri ori, gure erriko antxiñakoen oitura ta ekandu agurgarriak onartu ezik.

Kontuz ibilli gero ! Bestela zeuen ondamentia billatzen dozue!

LETONA'k

ALKAR-IZKETEIA

GARRANTZIA

* * *

Jakin jakiña da alkar-izketa garrantzi aundiko gauza dala, ondo gure arteko korapillo, eztabaida ta auzi garratzak ebatziteko era bakarra bera izanik.

Batez be Batikano II Batzarretik onantza asko jardun da alkar-izketaz, baiña oraindiño alkar-izketa au ez da geienetan ondo erabilten.

Alkar-izketa au nekeza ala erreza ete da?

* * *

BIDEAK

Eta zelan erabilli bear da onuratsua izan nai ba'da?

Urteak erakutsi dauskue benetakoa ta emonkorra clan ankar-izketea zail eta nekezkoa dala.

Alkar izketa igalitsua izan daiten apaltasunean eta asmo onean oñarritua izan bear dau ta ori geienetan iñundik bere ez da agiri.

* * *

ONARTU

Gizonen arteko alkar-izketak -alkar izketea baiño deadar eta burruka izketa geiago dirudie.

Alkar-izketa asko ikusia naz baiña eurak amaitzean au ikusi izan clot: Deadarka ta garrazika ibili dirala sarritan. Nik esan dautset bai batzuei ta bai besteai: zuentzt besteena, dana da txarra, esate baterako eskumatarrentzat ezkertarrena dana dago txarto, dana da oker, ta, bardina, ezkertarrentzat ezkumatarrena dana cia ustela, dana errakuntzea.

Nire itauna au cla: bai ezkumatarrak, bai ezketarrak, zer edo zertxo ona clan gauzarik ez ete daukee?

BIDE ERDIRA

Nik baietz uste. Bai erlejiño-gaietan, bai politika ;aietan, bai ta beste auzi guztietan clan danak dauke gauza onen bat.

Entzuten ikasi bear dogu.

Jasoten dana auxe da: alkar-izketa asi aurretik geurea bakarrik dala oso-osoan ona uste dogu ta ezelan bere ez dogu bide erdira eldu gura, bestearena ona dan ala ez ikusteko.

Norberekeri geiego dogu bakotxak eta orrela ezin alkar artu, ezin aurrerapenik egin.

Gure Euskalerrri maite onetan oso bananduta ;agoz eta erri maite au gaizkatu nai ba'dogu geitxuago alkartu bear gara apaltasunez eta biotz Dnez gure barruak beteaz.

San Austin aundiak esana egunero ausnartu bear dogu: BEAR BEARREKOETAN, BATASUNA; EZBAIKOETAN ASKATASUNA TA GUZTIETAN MAITETASUNA.

Gallastegi'tar Kauldi

EUSKERAZALEAK GARA

EUSKERA MAITATZEN ETA ZABALTZEN DOGU

BILBO EUSKALDUNTZEN ALEGINTZEN GARA. ZATOZ GUGAZ !

(Bialdu zure izena, bazkide izan gura ba'dozu, zuzenbide onetara: EUSKERAZALEAK, Colin de Larreategi, 14-2.º Telefono 423 53 22.

BAZKIDE - SARIA ORDAINDU EZKERO «ZER» DUBAN ARTUKO DOZU

GIZADIA

ORAINDIÑO GIZAGURENAK

KALTEDUNEN TALDEA

Izparringi ta aldizkarietan ez dogu irakurten, nik beintzat ez dot irakurri, baiña iru edo lau egun dirala, Ingalterra'ko aldizkari baten abista bat irakurri neban eta biozkada aundi bat artu neban.

Italia'ko egoaldean «Sizilia'ko Gandhi» deritxona ogetak urteetan ei dabil lanean Mafia'ren kaltetun-artean taldea, giza-barnez eta zuzenbidez sortzeko ta eratzeko.

* * *

MAFIA EZEREZTU

Orain ogei ta bost urte Danilo Dolci burruka gogorra egiten asi zan Sizilia'ko sartaldeko Mafia'gaz.

Sizilia'tarrai uste ona izateko irakasten dautse eta Mafia'ren indarra apurtu, ezereztu ta kentzeko giltza ta erea emongo dautsezela diñotse.

* * *

DOLCI - GANDHI

Gandhi ipiñi dautsoe izena, baiña ez jako atsegin izen ori. Berari santugai ta aszetaren iru-dirik ondo ez datorkola ta.

Dolci'k irakurri be ez ebazan egin India'ko buru-zagiaren idaztiak, arik eta Gandhi'gaz bardindu dabela jakin-arte. Izparlariak egindako lana zan bardintze ori.

* * *

DOLCI'REN IZAKEREA

Igarle ta aszetaren antza baiño geiago zaldun burges jakitunarena dauko Dolci'k: Aundia, lerdena, txairoa, bere betaurre ingurubakoakaz eta arpegi bigun, bizarbakoa ta arkondara zuri beso-erdikoz jantzita.

Erriko jenteari irribarrez eta apur bat alaitsu agertu arren, gitxitan izaten da biotz-zabal eta, sarritan abotsez eratsu ta leiatsua. Teutondar geiago dirudi, latindar baiño.

* * *

JAKITUNA

Italia'n, Kultura europatarrez jakintsua da Danilo Dolci, eta Suezia'n eta Dinamarka'n sariak artua. Azken urteetan amar liburu argitaratu ditu.

Berbizkunde edo «Renacimiento»ko gizona esan geunskio.

Zergaitik?

Bere zeregin ugariakaitik: Etxegille cia bere ogibidea eta orretan diardu, gizartelari.lez, Sizilia'ko txirotasunaren azterpenak egiten diardu, olerkiak edo poesiak idazten ditu, bere arpegi-ikustez, Mafia'ren arerio dan gizon eginkari lez egertzen da.

* * *

GIZONA

Dolci'ren liburu baten itz-aurrean, Aldos Huxley nobelagilleak auxe jakin-azoten eban: «Gurearen lako gizartean, Gandhi barri bat izateko, errukiz eta serefiñen maitasunez orniduta eta tresnatuta egon bear cla».

Sesana'n, 1924'ko bagillaren 22'an jaiot zan. Trieste-ondoko erritxu bat da au, orduan Italia izan, eta orain Yugoelabia dana.

Dolci'k diño: Nire aita italiarra izan arren, ama Slobenia'ko ta aitita jermendarra ziran. Orregaitik izakeraz arantza begiratzen neban, baiña nire ikasiak geienez jatorrizko sendi erdimaila-koenak ziran, jatearen, jaztearen eta bizitokiaren buruausterik ez neban izan.

Dolci'ren ama Jainko-zalea zanez, erlejiño-gaiak itzaltasunez eta maitetasunez begiratzen irakatsi eutson eta musika-zaletasuna be sortu-azo eban beragan. Amalau urterako, pianua, organua ta soiñu-auzpoa jotzen ba-ekian eta olerkiak idazten be bai.

1947'an ikastetxean egoala, ctxegintza-lan berezi bi argitaratu zituan. 1952'an Mafia'ren ekiñaldi-azterketak eginda gero, salatu egin zituan eta Sizilia'koai, istorian lenengoz, Mafia ren aurka idazkiak izenpetzeko eskatu eutsen.

* * *

EKINTZAK

Sizilia'ko txirotasuna, zori txarrak eta ezbearrak ikusirik, ezin esan aiñean biotz-ikaraturik, agintarriai idatzi eutsen: «Ogei ta amar milloa lira, beartsuak langutza emoteko ona etorri arte, ez dot kopurik jango».

Aundiki Sizilia'tar askoren eta bere senideen asarrea ikusi arren, alargun ezjakin. eta eskolabako bost seme-alabaren ama zan Bixentatxu Mangano alargunagaz ezkondu zan eta onen seme-alabak beretzat artu zituan.

Gau baten Dolci'k ume bat gosez ilten ikusi eban.

Buruaste aundia emon eutson orrek eta gose-oporra il-arte egiteko erabagia artu eban. Asi eta jarraitu be bai egiten.

Sizilia'ko sartaldean orain diran gizarte-onura guztiak ez dira, bear ba'da, Dolci'ren ekiñaldien ondorenak. Baiña bera barik ango egoerea beste bat izango zan.

EGILUZE'k

Sorgiñen Batzarrak

Euskalerriko sorgiñen batzarrak leku askotan egiten ziran, baiña Zugarramurdi'ko «Akelarre» batzar-lekuak dauka izenik zabalena.

Akelarre'n eundaka sorgin batzen ziran bariku gauetan euren jaiak ospatzeko.

Sorgin bakotxak bere etxean, sutondoan, lapi-kotxo bat eukan, misteriozko ukenduz beterik, eta norberen gorputza ukendu orregaz igurtzita, eta berba oneik esanda **guztien azpitik**, sasi guztien gainetik» Akelarre'ra egaz joaten ziran.

* *

AKER BALTZA

Sorgiñen batzarretan leenengo deabrua agertzen zan Aker Baltzaren itxuraz, bere adar oker eta okozpeko bizar luzeaz.

Akerraren oncioan Batzarreko Erregiña esartzen zan.

Au Sorgin guztietatik motzena eta atsorik zaarrena, zan.

* *

MEZA BALTZA

Sorgin guztiak, egaz etorrita, biltzen ziranean, Akerra «Meza Baltza» emoten asten zan.

Bi anken gaiñean zutunik, trumoi antzeko abots lodiaz, sermoia egiten asten zan, Jaungoikoaren eta zeruko santu guztien aurka iñondako zikinkeririk andienak esanaz.

Gero, bera mundu guztiko Jaun eta errege, zala agertzen, ete berak bere jarraitzalleai abera-

tasun andiak eta atsegin zoragarriak emoten eutsezala esan.

Meza erdian ikatz baltza, ostiaren orde, sagaritzen eban.

* *

AKER BALTZA GURTU

Mezaren azkenean Akerra atzera hegira jartzen ean, eta batzarreko sorgin guztiak banan-banan Akerra gurtuten adoratzcn eben buztan azpiko «zerean» mosu bat emonaz. Akerrak mosu bakotxari atzekaldeko ezkerreko anka altzauta eran-zuten eutsan.

Meza Baltza amaitzean Akerrak sorgin bakotxari lan edo eginbear bat izentatzen eutsan: zuk urliari kalte au egin bear deutzazu, zuk besteari beste gaiztakeria au egin bear deutzazu. Zuk beste alakoa ito egin bear dozu...

* *

SORGIN - BATZARRAREN AMAIA


Batzarraren azken-aldian, txistu eta clanboliñ-soiñuan, sorgin guztiak, emakumeak eta gizonez-l(oak naastean eta pilloka, clantzan asten ziran.

Gora eta beera, onera eta ara, zoroen antzera deadarka eta zarataka, gau osoa emoten eben eguna argitu arte, oillarrak kukurrukua jo arte.

Orduan neke-neke eginda, ostera ere etxera egaz etorten ziran, iñok ezer igarri barik.

Urrengo goizean sorgin ori Mezatan deboziño-ik andienaz ikusten zan, ezer txarrik egin ez baleu legez.

EGOERA MINGOTSA



EGOERA MINGOTSA

Neure lagun zar eta adiskide aundi bik idatzitako liburu oso onuragarri bi daukadaz eskuetan.

Gure euskerearen giroa beste bat izan ba'zan, pozik aundiarena artzeko zan liburu bi oneik ikustea. Eta poza artu dot, bai, baiña ez pozik aundiarena, ez poz osoa. Poztasunaren barruan mingots apur bat be ba-dakarre liburu oneik.

Aide batetik gaurko batuzaleak daukaguz, ezelan be onartu ezin doguzan bideak artu dituen batu-zaleak eta eurakandu daben Euskaltzaindia.

Beste alde batetik Euskera-zaintza'ren bidea, guk egokitzen jotzen doguna eta ainbeste ta ainbeste idazlek gaur onartzen dabena. Bide zarra, betikoa euskerearen arloan, baiña gaur bizitasun barria artu dauana.

Eta liburu bi oneik ez dagoz ez bagataz ez besteagaz, irugarren bidea, erdi-bidea billatu ta urratu dabe. Arau lez, Baturautzako Bizkaiera, atxe ta guzti.

Au gure zori txarra! Euskaldun guztiena esan gura dot! Gitxienez Bergara'ko batzar aretan Euskaltzaindiaren ateak pizka bat zabaldu ba'ziran!

EUSKAL JOSKERA (Adolfo Arejita'rena)

Gaurko euskaldunen artean diran eztabaidak eta goraberak gitxi ikututen

dabe jostekera. Sarritan egon naz au pentsetan: Inok etc daki jostekerearen lege ziuurrik? Zergaitik ez ete dira lege orreik agertzen? Ez ete da oiñarri on bat, asteko, Altube'tar Seber?

Eta ona emen jostekerei buruzko liburu lodi ta eder au, Adolfo Arejita adiskideak idatzia, Leopoldo Zugaza'k argitaratua eta Bizkaia'ko Aurrezki-Kutxa'ren babespean irarria.

Derio'ko Ikastaroaren metodolojia agertzen dau.

Ez dot izan, nai neuken beste astiro irakurteko ta aztertzeke erarik orain-diño, baiña ezin itzi nine adiskideari eta here lan txalogarriari buruz zer-bait esan barik. * * *

Galdegaiaren arazoa aztertzen dau lenengo Arejita'k. Eta ba-egoa gai au aztertu-bearra, ain da garrantzi aundikoa euskerearen idazkerarako!

Esaldien taldetzea egiten dau urrengo, joskerarako bearrezkoa eta azterpenak egiteko ez gitxiago: alkarren ondokoak... menperatuak, osogarriak, adizlagunezkoak, ingurumenezkoak... Elizti-zaleentzat sakona ta gozoa liburu eder au. Darabilen iztegia, inoz barria, inoz erderatikoa, geroak esango dau egokia dan ala ez.

Zorionak eta eskerrak, Adolfo! Jarraitu lanari eta ekin, guztion artean euskerea zor jakon maillara eroan dagigun. Jakituria egingo dau alkar-tasuna ta batasuna.

EUSKAL-ORTOGRAFIA (Mikel Zarate'rena)

Ondo dakit asieran agertu dodan samintasanak Mikel Zarate'ri ikutu ta ikutu baiño geiago egin dautsona. Guztiontzat da mingorra ta mingotsa egoera au. Orrelan azaldu eban Mikel'ek berak, eta baten baiño geiagotan, Bergara'ko batzar berezi aretan. Mikel'ek ondo daki bardin pentsetan ez doguna, baita lagun eta adiskide garana be. Zer egin? Jarraitu.

Liburu au, txikiagoa da, baiña ortografiari buruz idazteko, naikoa aundia ta sakona, lan ederra benetan.

Eta bearrezkoa gaiñera! Ortografi-arloan gauza asko zituan euskereak argitu-bearrekoak eta or agertzen dira geienak edo guztiak.

Naizta eritxiz batera egon ez, baktxari berea, lana ondo egiña cia, arauak bere eskolarako egokiak, gutzat asko okerrak, guztiak ez.

Lenengo euskal-alfabetoa ezarten dau gure Mikel adiskideak.

Nik konsonate agogaiñeratuak edo buztiak ez nituan or sartuko, Bizkaia'n beti dira alofonak edo abots-utsak eta oneik ez dabe ikurrik bear (DD ta TT'ri buruz diardut). Eta atxea,

zori txarreko atxea, ez da «fonema» euskalki batzutan baiño, eta euskal-abedean sartu bearrekoa ez da. Erdi-bide bat bear dala? Ez. Kalte egiteko danean ez da egin bear kalte-erdirik be.

Gero bokalen edo abots bakartien idazkerea dator. Gogoratu dagiguzan, ainbeste gora bera sortu daben ñ renak: Txiki-atzikia danean, maitetasuna agertzeke erabilten danean eta erderatiko itzetan onartzen dau, baiña bainu, koinak, maina, kainoi, konpainia, Espainia, seinale...

Ori orrelan, argi dago zein bide dan erdi-bidea eta alde batekoak aldatzen diranean, norantza aldatuko dan gure Mikel.


Konsonanteak edo abots lagundunen ikurak datoz urrengo: bituak, maiuskulak.

Gero «puntuazio xnarkak», zebakien idatz-arauak, loturik idazten diran itzak, bereiz idazten diranak, «abrebiatura» edo laburpenak.

Beintzat or daukagu euskal-idazkerea egokiro «planteatuta» edo aurkeztuta, gero Mikel'egaz batera ez gagozenok, geuk jakin bear zer zuzendu.

Ez dot uste esandakoaz gure Mikel minduko jatanik, eta egin dauan lan eder onetan diran alderdi on guztia-kaitik zorionak eta esker onak emon bearrean nago. Aurrera, Mikel, adiskide ta lagun zarra. Ia gorabera garratz oneik inoz konpontzen diran.

OLAZAR'tar Martin'ek



IPARRA GUIRRE

KARLISTADA'KO GERRATEAN

Gipuzkoa'ko Urretxua'n jaio zan Joxe Mari Iparragirre. Andik urte batzuetara, Madrid'era bizitzen joan zan bere gurasoakaz.

Amairu urte ebazala, esan eutson, bein, bere amari: —Agur, ama, ba-noa eskolara.

—Joan bai, erantzun eutson amak—, eta etorri zintzo-zintzo!

Ez zan, baiña, geiago etorri.

Eskolara bearrean, Euskalerrira abiatu zan oiñez; eta an ebillen guda bizian sartu zan, buru ta belarri.

Arriorriaga ta Kastresana'ko eraso gogorretan, sekulakoak egin ebazala, ta Karol erregeren guda-mutillen talde berezikoa egin eben, urren.

1839'garrenean amaitu zan guda zital ori, «Abrazo de Vergara», «Bergara'ko besarkadea» esaten jakon orren bidez.

* *

ATZERRIAN

Ez eban Iparragirre'k egiune ori onartu, eta bere guda-izkilloak errekarra jaurtita, Auñamendi'ko mendiak igaro ebazan, Prantzia'ra abian.

Ba-zan Paris'en kantari on bat, Caroline Duprez andereiñoa.

Andereiñoa gure mutillaren itxura ta abotsaz maitemindu, ta kanta ta musikaren barriak erakutsi eutsoezan.

Ez zan kantari makala urten gure mutilla! Kitarratxo bat eskuan, erriz-erri kantari asi zan. Abots ederra eukan, kantari ona zan.

1848-garrenean, matxinada bat sortu zan Prantzian; eta Iparragirre'k bere kitarratxoa artu, ta «La Marsellesa» abesti bizi ori kantaz, erri guztia asaldatzen joian.

Paris'ko agintariak ori ikusi, eta Prantzia'tik kanpora jaurti eben gure mutil urduria. Italia, Suiza ta Alemania'n zear ibilli zan iru urteen buruan, kantari-talde bategaz.

Jai andiak ziran Londres'en urrengo urtean, eta ara abiatu zan Iparragirre'ren talde ori. Alako baten, bertako antzoki ospetsuenean, euskal abesti xamur bat abestu eban gure kantari trebeak.

An egoan entzuleen artean, Bilbo'ko seme zan Mazarredo, ontzilari-buru aipatua. Agozabalka entzun eutson abeslariari. Eta dana amaitu zanean, arengana joan, eta zorionak emon ondoren, paperak konpondu, intsasontzi batean sarrerazo, ta Bilbo'ra bidaldu eban gure mutil erri-rindua.

GERNIKAKO ARBOLA

Bilbotik Madridera joan zan Joxe Mari, ariñiketan. Eta besoak zabal-zabalik, bere ama besarkatzera joiala, onela esan eutson onek, begiak busti-bustirik:

—Ume, ...au al dok eskolatik etorteko ordua?

Ba-zan Madriden «San Luis» eritxon kafetegi bat. An batzen ziran bertan bizi ziran euskaldunak. Eta ara be joaten zan, sarritan, gure Joxe Mari, bere kitarratoxa eskupean. Bardin egiten eban bere adiskide Juan Mari Altuna, Bizkai'ko musikalaria ospetsuak.

Eta egun batez, kafetegi ori euskaldunez bete-beterik egoala, ta Altuna jauna pianu jotan ziardula, Iparragirre'k bere kitartxoa artu, ta «GERNIKAKO ARBOLA»'ko bertsu aberkoiak abestu abazan, bere abots eder eta sentikorraz. Ango txalo, ta ango gorak!

Madrid itxi, eta Urkiola'n agertu zan, San Antonio'ko jaietan. Meza nagusia amaitu, ta eliz-aurrean egozan sei milla euskaldunen aurrean, «Gernikako arbola» abestu eban, barriro.

Eta, «adoratzen zaitugu, arbola santua» itz orreik abestu ebazanean, danak belauniko jausi ziran, begiak bustirik, eta eskuak goruntz. Eta Euskalerriko erri guztietara zabaldu zan, urren, gauza ori bera kantari beti.

Ez luzaro. Prantzian lez gertatu yakon emen be. Erria asaldatzen ebillela, ta Euskalerritik kanpora bota eben, barriro. Urte bi emon ebazan España ta Portugal zear, kanta-kantari beti.

* *

AMERIKETAN

Gero ona etorri, ta Tolosa'ko Anjela Kerexeta andereiñoaz maitemindu zan. Ezkondu nai, ba; eta sekulako era;ozpenak ipiñi eutsoezan emengo abadeak, bera ibilli zan sinbat erritako paperak eskatuz.

Ez zala Ameriketan ainbeste eragozpenik izango, eta s.ra abiatu zan bere emaztegiagaz; eta an ezkondu ziran, Buenos Aires'ko urian. Artzain jarri zan an. Arta]de polita eukan. Baiña oso artzain txarra zan. Sarritan esaten eutson acre andreak:

—Ara, Joxe Mari, orain be amabost ardi falta jatzuz.

—Etorri ez ba'dira, beste nunbait emen baiño obeto 3agozalako izango da, ene andretxo. Eurak be geuk lez askatasuna maite dabe...

Zertan ziardun, ba, Iparragirre, ardiak zaindu bea-rean? Bertsolaria zan, ...eta bertsotan al Goizean goiz . txetik arditara urten; eta areitara baiño len, bedar gainean etzun, ta bertsotan ziardun bere kitarratxoa lagun.

*

ERIoTZA

Amazortzi urte eroazan Ameriketako eremutan galdurik, ta iñork ez ekian aren barririk. Euskaldun batek beragaz :opo egin eban, alako baten; eta onek zabaldu ebazan aren Dizitzaren barri larriak.

Bereala jarri ziran lanean Ameriketa ta emengo aren agun -zarrak; eta ona etorteko dirua eskeiñi eutsoen.

Sekulako jendetza batu zan Bidasoaren ertzean, aren ain; an egozan, besteak beste, Euskalerriko aldundiak, uskal jaun eta andere garatuak, eta bere lagun zarrak. Eta an, Bidasoaren ertzean, eta bere lagun zarren aurrean, abestu eban Iparragirre'k «Ara nun diran» kanta aipatu :a eder ori.

Bakarrik etorren. Bizi-sari edo pensio bat eskeiñi aut,oen uskal aldundiak; eta aren zai egoan gure gizona, bere °mazte ta zortzi seme-alabak ona ekarrerazteko.

Jaso eban, azkenik, bere sari ori. Gertu egoan bereai leitu, ta areigaz etxean batzeko. Ez eban baiña orrelakorik ortzerik izan. Bere lagun batzukaz bazkaltzen egoala, anaritakoren batek gatx egin, nunbait, eta andik egun jatzutara li egin zan, gaixoa.

Il eta betiko mututu. Bera mututu zan, bai; ez orrela tren «Gernikako arbola». Eta ez da mututuko bere, Euskalerria Euskalerrira iraun daian arte.

URKIOLA'K

SANTUGAI BAT ARIETA'N (OMENALDIA)



Arrieta'n: Aita Patxi'ren irudia Bernaola bertsolari.

Joan clan urterillaren 7'garrenean, Arrieta Bizkai'ko rritxuan, bertako semea dan Aita Patxi pasiotar entzutsuari, beraren irudia enparantzan ipintea zala-ta, omenaldia gin jakon.

hIEZEA

Igandea zanez, gizaldra aundia batu zan, ez bakarrik rrikoak, baita Bizkai'ko alderdi askotatik eldurikoak be.

Amabiak-inguruan zazpi abadek esan eben batera mezea, .egarreta'tar Alejandro pasiotarra nagusi zala.

Jaiaren antolatzailea, langille nekatu-eziña dan Apraiz'-ar Luzio pasiotarra izan zan, eta berbalditxu mamintsua gin eban bere ikaskide Aita Patxi'ren bizitzaz.

Ainbeste gauza oroigarri esan ebazan eta auxe oroigarriena: «Aita Patxi lango diranak iñoiz be ez lirake il bear, zizonentzat oso onuragarriak diralako. Baiña tamalez Aita 'atxi joan jakun eta berari buruz esan leike Jesukristo gure rakasleari buruz esana: On egiñez igaro zan».

SARRI-OMENA

Meza-erdiaren ondoren, amar urteko mutiltxo ulegorri, irain batek oiturazko auresku polita egin eban, eleiztarren neraspen zoragarri ta eskerronez.

Meza-ostean, eleiz-aurreko enparantzan Aita Patxi'ren rudiaren onspena ta aurkezkundea.

Su-ziriak, bertsolariak, dantzariak tarteko zirala, ederto irten eban guztiak.

Ezagun diran Paulino ta Amuritza bertsolariak Aita atxi'ren bizitzako jazoerak edestu euskuezan.

Bernaola'tar Jerardo euskal bertsolari goragarria be gertu jakun, bakarrean Aita Patxi'gaz berari jazo jakezan akingarriak eta gogorapenak abestuz. Bertso oneik emen arraian argitaratzen dira.

Beste auresku bi, bata mutil azi batena ta esan dogun nutikoarena bestea. Ikustekoa euren jardunaldia: Jaurti xapel gorria boiotzezko irudiaren oiñetara, ta asten ziran xtazika, morapillaka, euren anka bizkorraz txistua ta anbolina lagun ebezala, atzera ta aurrera ta gora-goraka a milla jira-biraz, lagun-taldeak irribarrez egozala.

1ZKENA

Azkenez, Eukeni ta Koldo neba-arrebak euren danta, ota, biribilketa bizkor, alai ta eragikun ariñez, jai eder au kusterera joan giñan guztioi atsegiña emon euskuen.

LETONA'K

*Aita Patxin omenaldirako
Emen alkartu gara.
Ondo etorriak danok.
Eta goazan ba aurrera.*

*Aita Patxi'gaz batera.
Sarritan joannintzan.
Biok alkarren ondoan.
Neure berebillean.*

*Kamiño baztarrean.
Sarri aurkitu neban.
Kapeloa bere buruan.
Eta boltza baltza eskuan.*

*Eguna argitu orduko.
Antxe egoten zan.
Bear ba'da lorik egin barik.
Gaisoen baten gelan.*

*Jangoikoak berak ba-daki.
Lo nos egiten eban
Baña ezban lo asko egingo.
Sarri gaisoen gelan.*

*Aita Patxi'gaz itz egitea.
Oso gauza gatxa zan.
Bere ondoan egon ezkeru.
Otoi egin bear zan.*

*Berebillan jarriagaz batera.
Otoi egiten asten zan.
Arpegira begitu barik.
Otoitzari adi egoten zan.*

*Berebil batetik urtenda.
Bestebaten sartu.
Urrangoan bere bardin.
Jaunari arek erregutu.*

*Jaunari eta Andra Mariari.
Beti erregutu.
Bere tokira eldu arte.
Otoi egiten jarraitu.*

*Guda aldian zelan ibili zan.
Txalagarria da benetan.
Bere bizitza urko lagunagaitik.
Sarritan emon-gurean.*

*Gero bizi guztian.
Gaiso artean sartute.
Bere indarrak amaitu arte.
Azkenengo orduwa arte.*

*Gurutza bere eskuetan.
Eta GEURE JAUNA kolkoan.
Zenbat bider egon ete zan.
Gure etxe eta baserrietan.*

*Asko eta asko egongo dira.
Or batean bestean.
Berak egiñeko mesedeakaz.
Beragaz zorrean.*

*Aita Patxi lango gizonak.
Bear leitikez gaur be asko.
Bizi garan Mundu onetan baño.
Mundu obeau bat egiteko.*

Gerardo Bernaola

Indautxu'ko Enparantzea

Guztiok, ondo jaiok garanez, nik badaezpaclan olan uste, gure aberri, uri edo erriaz maitemindurik, bizi gara.

Ez da arritzeko zera.

Alan ba, egunotan nire auzo-unean, Indautxu'ko enparantzea barriztu dabe.

Ia iru urte dira asi zirala, berebillentzat lur-barruko gordeleku egoki ta erosoak egiten. Baiña ez neban uste ain dotoretuta geldituko zanik.

Opor aldiak baliaturik, joan nintzan gabonetan biratxu bat egiñez batera, Karmen'go eleizatik berantz, zuzen-zuzen, enparatza inguruko alderdixuak begitazen.

* *

BARATZA

Goi-aldean, len lez bide zabala ercli-erdian dagola dakust.

Aldamenean lorategi ederrak ornidu dabez. Zugatzak be ugariak eta ederrak dira eta euren artean, goiberan, seiren bat nei rkin edo metro dabezenak eta... sustertu dabez. Ba-dagoz ala ta be, txikiagoak, sendo ta garri zabalagokoak diranak, eta oraindiño, andik-emendik, lañdatzeke, tinkatzeke be banaka batzuk, dakusgunez. Berreunen bat guztiz izango dirala dirauskue.

* * *

ZUGATZ-BEARRA

Ba-dogu Bilbo'tafrak uri-berruan oneinlako zugatz eta enparantza txiki-aundien premiña bizi-bizia, noski.

Indautxu enparantzak 6.500 neurkin lautu ei daukaz eta euretatik 2.500 lorategi ta lur-zerrenda orlegiz gaiñezka izango dira.

Aurki luze samartxuak be begiztatu geinkez an-or-emen kokatuta, atsedeen-pizka bat artu gura dabenentzat.

* * *

!UGATZ - MOTAK

Zugatz-mota orotarikoak daurkiguz bertan: i au-zugaitz edo zipresak, mañoli, piñu ta keriz-ndoak euren artean, «Lurpeko Egintza Bilbo'tarak» edo «Infraestructuras Bilbafnas» deritxonanen ardurapean landatuak, ain zuzen.

Bilbo'ko Udalak enparantzako lorategi ta zugaitzak dirala-ta, 30 milloi pezeta eralgi ditu.

Berebillen lurpeko gordelekuak-eta kontuan arurik, 300 milloa lauerleko eralgi dira.

* *

3EREBILLEN LURPEKO GORDELEKUA

Orain onetzaz mintzaturik, arrigarria iruditu aku benetan.

Goiberako lau egoitz edo mailla berezitan, 700 berebil kokatu leikez. Dakusgunez, aundienerikoa dogu.

Goi-aldeetik, Alameda de Urkijo eta Gregorio le la Revilla kale txik ezagunak. Bilbo'ko toki ;arrantzitsua benetan:

Aterpe panpin begiko batetik berantz jo ezker, enengo egotegian Indautxu'ko saleroste parking' ;gaz topo dagigu. Ederrenetarikoa, egiz, «boutillue» eta bestelango saltoki ikusgarri ta jantziakaz tpaindurik dogu. Ncurki lautuetan, 2.000 inguru. Draingoz guztiz 11 denda izango dira eta baeiteke laster kopuru au geitzea.

Gora aundikoak: Landare ta lore-Jendea, er-ojutegia, azal-apaingarri edo kosmetiko-dendea,)anketxe bat, berebil-erakusketea, tindetxea, jos-aillutegia, tresnategia ta errediz-dendea, bizartegia ;a, batik bat, «erriko» izeneko denden arteko azoka aunditsu ta margo polit ederrez apaindurik .goan eta euskal giro ta sena nibtritzen zan non-t ai.

* * *

EDERTZEN

Ia Bilbo loratzen eta edertzen dogun. Ez logu, ez, Donosti lakoa, 'baiña gure aletxo ipiñiaz isko irabaziko dauala deritxat.

ARREGI'tar ,josu'k

Agate Deuna'tzazko Abestiak

1

Bedeinkatua izan dedilla
Erri ontako jentia,
txiro ta apal dabizantzat
ba'dabe borondatia;

Santa Martiri maitia
dago errukiz betia,
berak jaretsi beigu guztioi
osasuna ta bakia. (Birritan).

2

Baiezkoa eskatzen deutzagu
Erriko Endoreari,
Dun Agate'n bizitza biotzez
kantateko Erriari;

Eder soñez ta liraiña
Agate da zoragarri,
gure artian bere gomuta
biozkor izanda beti. (Birritan).

3

Nok kontau zer igaro ebana
Ludi onetan Agatak,
min sentituz ta zauriz agertuz

Gorrotuaren maltzurra!
gisa-erriaen nai txarrak,
zardaiz ederto zigortu eta
ebai eutsezan bularrak. (Birritan).

4

Gero expetxean sartu eta
gertatu jakon BITXIA,
zeruetatik jasten eutsela
Jaungoikuaren Grazia;

Mirari ikaragarri
Agatentzat pozgarria,
Deun Kepak berak osatu eutsan
errukiz soñia guztia. (Birritan).

5

Borrero txarrak esanik bere
ilgo zara arratsian,
len baizen aurkitua izan zan
Agate bijamonian;

esan eutsien onian
jarri ba gure legian,
bestela laster aurkitukoaz
Kintzianoren aurrian. (Birritan).

6

Enperadore gaiztuek diño
ekar eizue neugana,
ta neskatilla Dunak biotza
len baizen darue leuna;

Jaun Zerukoak emona
orain beragan dabena,
ze Maitasuna andia eukan
gure Jaungoikoa gana. (Birritan).

7

Kintzianok au diñotso sumin
bizi nai badok oraindik,
gure Jainkoa bear dok zintzo
agurka egin gogotik;

Itz gogor orreik entzunaz
Agatek diño bakarrik,
agurtzen dodan Goiko Jainkoa
ez dot ezautzen besterik. (Birritan).

8

A adorea euki ebana
etsai gaizoen aurrera,
apaltsasunez here begiak
itzuli beti lurrera;

Enperadore zitala!
a beti bere senera,
atarateko aginduten dau
narraz Agate kalera. (Birrituan).

9

Orrelaxe da arrigarria
Deun andi onen bizitza,
maitasun batek ixioturik
agertuz beti biotza;

Etsaiakaz ez koldarra
birtutez gisa garitza,
;aztea zala eredu dogu
jasatzen neke min latza. (Birritan).

10

Abeslari gagozen guztiok
erri ontakoak gara,
Agate Deuna bijar dogu ta
lanoi gatoz eskatzera;

Kristautasuna zintzoa
Alegindu eukitzera,
La danon esku zabalagaitik
eskerrak danon artera. (Birritan).

Bilbo euskalduntzen

Zertarako euskaldundu Bizkaiko uri nagusia?

Bizkai guztiarentzat eredu ta jarraibide izan daiten.

Gauza guztietan txikiagoak aundiagoari jarraitzan dautso; orrela bildotzak ardiari, arrain txikiak nagusiari, txoriak zarragoari.

Bilbo uri nagusia euskaldunduten ba'da, geien baten Bizkai'ko erri ta baserri txikia-
goak aren antzeko izaten aleginduko dira.

Len bere ori jazo da bestetara: Bilbon erdera egiten zalako erri ta baserritarrak erdera ikasten alegintzen ziran.

AL ETE DA?

Baña. Bilbo euskalduntzea al dan gauza ete da?

Bai orixe.

Nik ezagutu neban atzerritar emakume bat sei illabeten barruan euskeraz polito maniatzen zana.

Or daukagu baita Aita Pio Mortara, judatarra Laterandar Kalongea. Eldu zan Italia eta Prantziatik Oñatiko erri txukunera ta iru illabeten barruan ikasi eban euskera bai ta ederto euskeraz itzaldiak egin Gipuzkoako erririk geienetan.

Or ditugu bai ta ainbat eta ainbat euskalbarri, ekin eta ekin eta lan ta lan euskera polita ikasi dabienak.

Eta orrek egin dabena besteak ezingo dabe egin?

ZER EGIN?

Bilbo euskalduntzeko ona litzateke txaide ta saltoki guztien izenak euskeraz ipintea, bai ta zinema ta telebistan euskera geiago erabiltea ta bardin izparringi ta aldiskarrietan, eta dakigun guztiak geure arazo, jolas eta artu amonetan euskera erabili beti.

Orrela danen begiak eta belarriak euskera ikusi ta entzuten oituko dira ta. Lotsagarria dan beste gauza bat aldendu bear dogu gure erritik: Emengo agintari, Diputadu ta dirudun gaienak ez dakie euskerarik.

Zelan joango dira Madril-aldera elebitasunaren eske, eurak euskera ikasten alegindu barik?

ELEIZEAK

Elizea asko iratzartu da euskal arloan baiña ondiño Bilbo'ko eleiz gizonik geienak,

ia ia lautik iruk ez dakie euskerarik, eta eliza askotan ondiño ez dira erosi euskerazko liturgi liburuak.

Ortik zear ikastaro edo kursillo asko izaten dira, nire ustez udaldian euskera ez dakien abadeak euskerazko ikastaroa euki bear leukee: Lenengo eliz-liburuak irakurten asi, ortik aurrera euskera geitxuago ikasten jarraitzeko.

IRAKASKINTZAN

Bilbo geiago ta geiago euskalduntzeko biderik egokiena irakaste guztietan elebitasuna ainbat lasterren ipintea da.

Irakaste ori lenengo urteetan euskera errikoian egin bear da euskeraren arima, sena galdu ez daiten. Orretara, erriko euskera ondo ikasi ezkerro eldu leiteke gero euskera batu zentzundun batera, eldu geintekoz euskeraren sena, edestia ta kondaira kutsua galdu barik.

IRU BERBETA

Nire ustez umetxoak eskola ta ikastoletan iru ele ikasi bear leukez.

Lenengo ta bein gure-gurea dan euskera maitea, gero ego-aldean dogu kastilla ta ango ele ederra be ikasi eta azkenez ipar aldean ditugu Prantsesak eta orren ele jakingarria be eskolan ikasi bear geunke.

Umeak errez-errez ikasten ditue gauzak, orregaitik iru ele jakiñagaz gure umeak jakintsuak izango litzakez.

Esan da gizonak zenbat izkuntza jakin ainbat bizi dituela.

Gure umeak iru izkuntza ikasiaz zelako bizitza ugari ta aberataza eukiko leukien!

LARRI GAGOZ

Euskera maite dogunok, Bilbo maite au dala euskalduntzen ikusirik larri gagoz eta barruan bultzakada bat somatuten dogu : Eleiz-orreetara, Artxanda Pagasarri ta beste in-uruko mendietara igo ta deadarka asteko ;ogoa, esanaz: Bilbao, bazenki nundik jator-zun gaizkapena (Ori esan eban Jesus'ek rerusalen'go galgarria gogoraturik) Bilbo zure ;albamena euskerara, zure oitura ta abestie-ara biurtzean dago ta guzti ori Kristau edean oñarriturik.

Orrela jazoko ete da laster laster?

Danon alegiñagaz baietz uste dot.

Ori ez ete da politika?

Ez. Ori erri-maitasuna da.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

BERTSOETAN

BAKE-AIZEAK

Urten egizu, biotzetatik, maitasun - iturri orrek;

Urten loretxu, txit politetik, dozun usain gozo dana

Urten bai ezpan, gorrietatik, irri-barre ez-titsua

Urten bai begietatik, argi bizi driz-driz, ta otzana

Alkartu danok, euskal ortzean, odei zuri-zuri sortzen.

* *

Eldu bai gero, itxas-aizea, zuek danok indartzera;

Erri guztira, bultza egiñez, arnasa-bidez sortzera,

Euskaldun danon, biri-bularrak, maitasunez betetzera.

Orrela lortu, gure gurari, sakon ta aundia.

Laiño orren eztiak, arnasa artzean, guztiz beteko al dauz

Usain gozoz, ezti-bigun, maitetasun alkartasun lortuz

Euzkadi dana, olako aise garbik beteko al dau gaur.

* * *

Dian izango dala, erririk onen, eder kutunena Egunen baten, danok esango dogu: Nun guda-nekea?

Euskaldun anai maite! poztu zaiz ta jarrai, beti aurrera

Esurea da garaipen, gurea osasun, gurea bakea.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

LENGUSIÑAREN ERIOTZAN

Ilbetz onetan, asikera
zeure eriotzen barria,
ta ainbeste oldozpen itunak
neure biotz barrenean.

* *

Liorren eta Dima'n. bitartian
aurkitzen da asabaren basetxia
anai bien alabak, eta biak
bardin ixena, baita abixena.

* * *

Asabaren etxera, geure elia
obeto ikasteko, juan nintzan
udabarri baten. Ni gaztia,
zi gaztiago ziñan, euzkelduna;
ni, erdi-euskaldun baiño enintzala.

Mayetz-azkena zala, illuntzian.
Zeure gorputz-inguru, zeru-mugan,
lepo oyalaz lotuta, zeure neba.
Abots argiz aizian abestia...
loren abesti zala, oroitzen naz.
Zu larrosa, benetan, ba-zara-ta,
larrosa pinpiña, zeure albuana.

* *

Urriak igaro ta neskatua
ezkondu, andra zabala bigurtu zan
eta bere nebatxu abadia,
Miren-Biotz-Semia orain dala.

* *

Zeure goguen alde, danok otoi...
Neure barruan dago itxaropen;
Lepoz eruan zenduban neba orrek
orain Jaugoikoagana eruango au
goiko indarrez, zerura, len bai len.

UTARSUS

**AGUR URTE ZAR!
AGUR GABON ZAR!**

Agur gabonzar, agur !
Zureak egin dau!
Ate-joka daukagu
Urte barri bat gaur.

* *

Zoaz mundu ontatik
sekula santuan,
gartu zara guztiz,
its dozu barruan.

* * *

**Ainbat poz eta neke
zure sabelean,
izan ditugu danok
gure biotzean.**

* *

**Orain urte bete da,
gure itxaropen
zuga ipiñi . genduan
barrua irakiten.**

* * *

**Urtea joatean,
nai genduan geien bat,**

**ez dogulako lortu,
nai dogu beste bat.**

* * *

**Zoaz! Ezer ez zera
Zoaz ! Urte zarra!
Pekatu askorekin
galdua bait zara.**

* * *

**Betor Urte barria,
gazte ta guria,
beragaz bat etor bei
bake ugaria.**

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

EUSKERA ZALEAK

IDAZKERA - ALDAKUNTZAK

Betidanik orain arte ta oraindik euskera bizian bizi diran 11 ta ñ betirako kendu ta baztertu euskuezala uste izan ge:iduanon ustea, ustela izan dala, autortu-bearra dogu, oraingo ontan.

11'ak ez, elleak ez dau izan, oraindiño beintzat, JUDIZIARIK.

Leotzean dago, gatzontzian, bizi-aldi barri baten begira.

ñ'ari bai, eñeari egin dautsoe, lotua, espetxeratua ta amar urtetan illen artean euki-gerozko JLT-DIZIOA.

Amnistia opa izan dautsoe ñ gaixoari eta kaleratzeko alegindu.

Eskuratu dau kalean ibilli al izateko baimen agiria.

Agirian, eguneroko ar-emonetarako, JUEZEK aukeratu eta izendaturiko bost-sei lagun, besterik ez.

* * *

Betidaniko euskereaz eta oraingo batu au baiño aintziñagotik egiten asirik zegoanaz bat datozenak ez dabe, izen-abizenetan, ezar aldatu-bearrik..

Baiña besteak, mairu edo moroen alderdira eta aruntz jo dabenak, bai.

Orreik, zurikerian bizi ez ba'jakuz, gurasoengandik arturik daroen ñ'dun izenaz n'duna egin-bearrean dira.

* * *

Izen zar batzuk oraingo eran: Begoina, Inaki, Ipina, Orduina, Loroino, Arginano, Egaina, Biterino, Mainari, Ereino, Arraino...

LANDAJUELA'tar A'k

OARRA:

EUSKERA ZALEAK Alkarteak, il onen azkenean, Errekalde'ren Ibilbidean (Alameda de Rekalde) dagoan Kalazanz'darren ikastetxean, urteroko batzar nagusia egin dau.

Egun orretan, urterillaren 31'n, egindakoen barria urrengo ZER'en emongo dogu, oraingo au irarkolan izango dalako.

ZER DA

Leotza? Zigortuak zaintzeko gertatu dan toki berezia.

Neurkiña? Luze-zabala neurtzeko artzen dan neurri legetua, metroa.

Daurkiguz? Aurkitzen doguz.

Mintzatu? Itz edo berba egin.

Kopurua? Taldea, moltzoa, mordoia, pilloa.

lindetxea? Margoak soñekoai ta olakoai ezarten dautsezan etxea.

Errediza? Etxeko oge, mai ta olakoak, «muele»ak.

Egiunea? Biren aldetik, berbea bitarte, egiten dan ituna, kontratua.


Asaldatu? Talde bat agintarien aurka jagiteko bizkortu, «amotinat».

Abiatu? Bidera sartu.

Aberkoia? Aberri-zaletasuna aldean daroana.

ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU